

“INTRODUCCIÓN A LA TECNOLOGÍA EDUCATIVA”

Manuel Área Moreira

5 HITZ GAKO:

- Globalizazioa
- IKT-ak
- Alfabetizazio Teknologikoa
- Hezkuntza
- Integrazioa

2 GALDERA:

- Hezkuntz ez- formalaz hezitzea umeentzako onuragarri edo kaltegarria izan daiteke?
- Irakasle berriok lortu beharreko erronka, hezkuntza sistema tradizionalen teknologia berriak integratzea izan beharko litzateke?

SINOPSIA:

Teknologia berri delako arlo honek aldaketa ugari ekarri ditu gure mundura eta gehienbat hezkuntza munduan ate asko zabaldu ditu. Zein da teknologia berrien papera, eraiki nahi dugun informazioaren gizarte honetan? Eta horrela bada, zer motatako gizarteak eratu nahi dugu?

MAMIA:

Gizakia teknologia berrien aurrean hezitu behar da, horretarako ezagutza batzuk barneratu behar ditu. Ikastetxeetan erronkak sortarazten dira, adibidez analfabetismo teknologikoa (teknologia berrien ezjakintasun nibelari dagokiona) delako kontzeptu berria agertzen da, irakasleek prestakuntza berezia behar izango dute era teknologiko honi aurre egiteko eta ahalik eta metodo berritzaile gehiago barneratu beharko dituzte, betiere autorearen protagonista nagusia ikasle bera dela kontuan hartuta.

Gainera, globalizazioari esker mundu osoko ezagutzak sakabanatu, elkartrukatu eta gaur egungo gizarteak teknologia berriak erabiltzen ohitu da, honen eraginez, fenomeno berriak islatu dira gurean ; *e-Learning* (hezkuntzaren bide formal zein ez-formalak zabaldu dituen *campus birtuala*), *brecha digitala*, *moodle (plataforma)*, *wikiak*, *blogak*.... geneukan heziketa

tradizionala moldatuz edota hezkuntza formal horretan teknika berriak integratuz.

Curriculum aldaketa bat ere eskatzen du Moreirak, eskolan praktikari ez zaiola behar besteko garrantzia ematen eta teoriak inportantzia handiagoa izan beharko lukeela aldarrikatzen du liburuan.

HAUSNARKETA:

Egia esan liburu honetan planteatzen diren galdera ugari egin nizkion nire buruari bigarren praktikaldian. Praktikak egin nituen ikastolan material teknologiko berria integratzen hasi ziren, baina soilik hori, klaseetan integratu; arbela elektronikoa, ordenagailu portatil batzuk... Baina nire hiru hilabeteetan ez zituzten ikutu ere egin. Beraz, bai, esan dezakegu material teknologikoak hezkuntza mailan integratuta daudela, baina ez dira praktikan jartzen. Nire kasuan, irakaslea nahiko nagusia zen eta beti berdina esaten zuen, teknologiak eta bera ez zirela ondo eramaten eta zertarako ikasi behar zuten eurek (irakasleek) "katxarro" horiek nola erabili.... nik askotan laguntza eskeini nion, arbela elektronikoa nola erabili behar zen azalduko niola baina berak ezetz, uste dut ez zuela umeek, nik berak baino gehiago nekiela ikusterik nahi. Egoera honekin argi ikusi nuen pertsona helduek teknologia berrien aurrean erakusten duten "analfabetismo teknologiko" delako hori, eurentzako ate asko itxi egin zaizkie, betiko irakaskuntza tradizionaletik beste modernoago batera bideratzen ari dela hezkuntz mundua ikusten dutelako eta uste dute ez direla gai izango gizarteak markatzen duen erritmo berri hori jarraitzeko.

Gainera uste dut teknologia berriek ez dutela oraindik euren lekua aurkitu gaur egungo eskoletan, askotan egunero bete beharreko ordu kopurua betetzeko barneratzen dira ordutegian. Berriro praktikaldia aipatu behar dut, teknologia ordu bat astean ematen genuen eta gaztelaniako ikasgaiko hiztegia aurkitzeko interneten erabiltzen genituen klasetik informatika gelararte joateko gelditzen zitzaizkigun 40 minutu eskasak.

Ondorioz uste dut normalizatu beharko ginatekeela, gizartea oso aurreratuta baitago teknologikoki eta gu, gizakiok ezin gara atzean geratu, gizarte globalizatu honen erritmoa jarraitu beharko dogu atzean geratu ez badugu nahi, beraz, merezi duten tokia emon diezaiegun teknologia berri delakoei!